

PASATU GABON! Piezen letrak

ERRANAK / ESAPIDEAK

- ez naiz logale / logale naiz
- leher eginda egon
- lo seko
- pasatu gabon!
- aharrausika nago
- mimontzi putz
- ze kopeta (daukazu)!
- deabru hori!
- zurrunga batean
- hau duk hau!

IPUINA

Lamiak emagin eske (Azpitu-tuluetakoa)

Aspaldi-aspaldi-aspaldian, haurrak ez ziren ospitalean jaiotzen, baizik eta etxeetan, m? Herrietan, etxeetan.

Istoria hau lamia batekin hasten da, e? Lamia hau erditzeaz zegoen eta beste lamiei laguntza eskatu zien, bada hori, emagin bat... emagin baten bila joateko. Lamiak bertara joan ziren eta Iturengo Barbeneko etxeoandrea nagana joan ziren ze bazekiten bera emagina zela.

Berarekin basoan zehar sartu ziren eta ibaira iritsi ziren. Orduan lamiak makiltxo bat hartu, urari kolpe bat eman, plas! Eta ura bitan zabaldu zen.

K- A!

M- Fraaa!!! Eskailera bat agertu zen eta bertan behera joan ziren. Eskailera jaitzi zituzten denok batera. Orduan emakumea konturatu zen dena urrezkoa zela. "Ai, ama!" -esan zuen "Hau dena urrezkoa! Ze, ze polita!". Eta lamiak ogi puxketa bat eman zioten zerbait jateko eta ogia txuri-txuri-txuria. Etxekoandre horrek, bada, pixka bat jan eta gorde egin zuen gero etxean erakusteko.

Orduan, lamiari erditzen lagundu eta beste lamiak, sari bezala, bada, txarrantxa bat eman zioten, baina urrezko txarrantxa.

K- Aaaa...

M- E, ba... badakizu zer den txarrantxa? Bada, liho haria egiteko erabiltzen... erabiltzen zen lehen, baina urrezkoa zen eta horrek, bada, balio handia zeukan.

Beraz, emakumea bueltan joan zen etxera. Lamiek, plas! urari kolpe bat eman makilarekin, baina ura ez zen zabaldu! Eta esan zioten: "Mmm! Guk eman dizuguna baino zerbait gehiago hartu duzu zuk, e?!". Emakumeak, orduan, lotsatuta, ogia atera zuen poltsikotik eta, bai, orduan bai, xua! zabaldu zela, eskailera agertu zen eta han joan zen gora. Lamiak atzetik eta esan zioten: "Etxeraino joango gara zurekin, m? Badaezpada ere, ze gaua da, baina ezin duzu atzera begiratu!". Emakumeak gogoia zeukan atzera begiratzeko, baina, aurrera egin zuen, m? Baina, bat-batean, bere atzean musika aditzen hasi zen, eta argi politak eta distirak eta "Aiii!!", baina aurrera egin zuen.

Etxera iritsi zenean, atea zabaldu hanka bat etxean sartu eta, bira egin zuenean ikusteko zer zegoen atzean, txarrantxaren erdia desagertu egin zen. Xuuum! Orduan, bat-batean, beldurtuta atea itxi eta txarrantxaren erdiarekin gelditu zen, baina, ba! Urre horrekin garai haietan etxe ugari erosi zituen eta oso ondo bizi izan zen.

(Gidoirako idatzitakoa)

Garai batean haurrak ez ziren ospitalean sortzen, etxean baizik, eta erditze horietan laguntzeko emaginak izaten ziren, herriz herri eta etxez etxe ibiltzen zirenak.

Gau batean, lami bat erditzeko punttuan zegoela, beste lami batzuk laguntza eske joan ziren Iturengo Barbeneko etxeoandarearenagana, bazekitelako emagin lanetan aritzen zela.

Ibaira iritsi zirenean, makil batez ura jo eta partitu zen. Hor eskailera batzuk zeuden eta horietatik jaitsi zirenean, emaginak bere lana egin zuen. Emagina harrিতua zegoen, lamiek dena urrezkoa baitzuten. Ogi zuri-zuria eman zioten jateko, goxo-goxoa. Horrek ere atentzioa eman zionez, mantalean puskatxo bat gorde zuen etxekoei erakusteko.

Lamiek, bere lana eskertzeko, urrezko xarrantxa eman zioten. Xarrantxa aspaldi-aspaldian liho haria egiteko erabiltzen zen tresna zen. Orduan esan zioten etxera lagunduko ziotela, baina baldintza bat jarri zioten: ezin zuen atzera begiratu, bestela urrezko xarrantxa kenduko zioten.

Makilaz ura jo zuten berriz, baina ura ez zen partitzen. Orduan, lamiek esan zioten:

- Zuk guk eman ez dizugun zerbait hartu duzu...

- Ez, ez, nik ez...
- Bai, ura ez da partitzen, beraz, zerbait hartu duzu.

Orduan emaginak mantalean zuen ogi puska atera eta lamiei eman zien. Orduan bai, makilaz ura jo eta eskailerak gora joan ahal izan ziren.

Gaua izan arren, emaginak ezin zuen gertatzen ari zena sinetsi, bidea argitzen zitzaiolako pasatzen zen tokitik eta musika aditzen baitzuen. Emakumea atzera begiratzeko irrikaz zegoen, baina lamiek baldintza hori jarri ziotenez, etxera iritsi arte itxaron zuen. Barbenera sartzen ari zela, hanka bat etxe barruan zuela eta bestea kanpoan, buelta eman zuen eta lamiek, ra! xarrantxaren erdia kendu zioten.

Hala ere, urrezko beste xarrantxa erdiarekin inguruan lurrak erosi eta beste etxe batzuk egin zituen.

JOLASAK

Hankekin jolasteko

Xango-mango

Xango-mango,
gure haurra nongo?
Gure haurra guretako,
tirritako, tarratako!
Purrut, purrut, purrut!
Mattinendako!

Xangolo-mangolo

Xangolo-mangolo,
haur hau nongo?
Ona bada, guretako,
eta gaiztoa bada, Markalaingo.
Ez dudala beharrik,

baditudala franko!

Orduan?

Putzuan beheiti botatzeko!

Eskuekin jolasteko

Katu mixi marrau

Katu mixi marrau!

Laratzean gotti,

bere bost umeak ondotik,

seigarrena sabelean,

ogi pixka bat magalean.

Marrau, marrau, marrau!

KANTUA

Ttantarrantana

Ttantarrantana,

nire laztana,

ez egin lorik basoan.

Ehiztaritxoak emango zaitu,

erbia zarelakoan.